

apako uzten»

eragin txarra aipatu dugu lehen, eta horrek aurkakoa erakusten du. Horren arrazoia izan liteke behin garapen ekonomikoa maila batera iritsi eta gero, beste balore batzuen bila jotzen duela komunitate horretako gizarteak. Baloreon artean leudeke bertako kultura eta hizkuntza».

Hizkuntza gutxiuak dituzten komunitateen kasuan ohikoa da, Jose Mari Zendoiak aztertu

GARI GARAIALDE

dituen txostenetan agertzen denez, industrializazioarekin komunitate batzuek erabiltzen zuten hizkuntza gutxitua hizkuntza nagusiak ordezkatu izana. «Komunitate batek erabiltzen zuen hizkuntza normalizatu ez zegoen kasuetan kanpoko hizkuntza normalizatu hartu zuten. Ordura arte ez zen horrelakorik gertatzen, izan ere, nekazari giroetan hizkuntza hori finkatuta zegoen, lan egiteko ez zelako behar hizkuntza trebezia berezirik».

Euskararen sektoreak Euskal Herriko Barne Produktu Gordinean duen pisua aztertzeke saioa ere egin du Jose Mari Zendoiak. Tesiaren ondorioetan agertzen duenez, zailtasun ugari izan du bidean, Euskal Herriko banaketa administratioboak eraginda. Hala ere, berak egin duen saio horren emaitzen arabera, euskararen sektoreak Barne Produktu Gordinaren %2 betetzen duela ateratu du. Bestalde, ondorioetan agertzen denez, gaztelerazko ondasunak ekoizten dituzten enpresentzat, euskarazko ondasunen merkaturan lehiatzeak mozkinak handitzea eragin dezake.

Arlo ugaridun tesia

Hizkuntza gutxiuak eta ekonomia gaiaren inguruan dagoen bibliografia aztertu du. Ikerketarako zenbait ildo ezarri ditu Jose Mari Zendoiak. Ikuspegi historikoaren ildoan landu du lehenbiziko: bilakaera ekonomikoak historikoki hizkuntzetan izan duen eragina. Ikuspegi sozioekonomikoan hizkuntz taldeak klase sozial diren ala ez aztertzen du. Teoria ekonomikoaren arloan hizkuntza gutxituei buruz egin diren ekarpenak hartu ditu kontuan. Egitura ekonomikoa da tesian kontuan izan duen beste atala. Euskarak sektore ekonomiko moduan duen garrantzia eta jarduera ekonomikoan euskarak zenbateko lekua duen landu du. Administrazioak hizkuntza sustapenerako darabilen diru kopurua ere aztertu du Jose Mari Zendoiak.

Atal desberdin ugari dituen lana da. «Guztiak lantzen ditut, baina normala denez, ez dut guztietan nahiko nukeen beste sakontzerik izan». Alderdi hori izan zen, hain zuzen ere, bere tesia zuzendu zuen epaimahaiak egotzi ziona. «Nire lanarekin, euskararen eta ekonomia gaiaren inguruan zegoen hutsune bat betetzen hasi nahi nuen. Osatutakoak balio lezake atzetik datorren baten lanaren lehen urrats moduan. Badaude gehiago sakondu litezkeen kontuak, baina hori beste batzuen lana izango da».

Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak Finantza Merkatuei buruzko ikastaroa hasiko dute Internet bitartez

Erredakzioa/Bilbo • Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak eta Eusko Ikaskuntzak Internet bidezko Finantza Merkatuen ikastaroa jarriko du abian. Ikastaroa martxoan hasiko da, eta 2001. urteko ekaina artekoa izango da, eta 15 modulutan banatuko dute antolatzaileek. Alderdi praktikoa eta teorikoa landuko dituen ikastaroak 200 ordu iraungo duela jakinarazi dute Mondragon Unibertsitatetik.

Ikastaroaren helburua ikasleari finantza merkatuen gainean jakin beharreko guztia ezagutzea ematea izango da, merkatu horien ikuspegi orokor batetik abiatuta. Alvaro Ispizuak eta Roberto Alvarezek zuzenduko duten ikastaroan Mondragon Unibertsitateko, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko, Cadizko Unibertsitateko, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek parte hartuko dute.

Ikasleek ikastaroan landuko duten materiala posta elektronikoki bidez jasoko dute astero edo hamabostetik behin. Irakasleek lantzean behin azterketak jarriko dituzte ikasleek duen jakintza maila aztertzeke, eta lan praktikokoak emango dizkiete ikasleei. Ikastaroak izango duen web orrian klabe baten bidez sartu ahaliko du ikasleak, han material osagarriak izango ditu, eta ira-

kasleei sor dakizkiokeen arazo guztien gainean galdetu ahal izango die. Osatu beharreko azterketak eta ariketa praktikokoak ere gune horretan aurkituko ditu ikasleak.

Otsailaren 15a arte izango dute aurrematrikula egiteko aukera ikasleek, eta matrikulatzeko azken eguna otsailaren 28a izango da. Ikastaroa 200.000 pezeta kostako da, baina ikasleak berarentzat interesgarri diren modulueta matrikulatzeko aukera izango du. Horretarako, gutxienez 70 ordu bete arteko moduluak hartu beharko ditu ikasleak.

Ikastaroa amaitzen denean, ikasleek Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak eta Eusko Ikaskuntzak emandako diploma jasoko dute. Diploma horrek 20 kredituko balioa izango du.

Teknika eta finantza tresnak, finantza merkatuak, finantza merkatuen araudia. Horiek dira ikastaroa osatzen duten hiru arlo nagusiak. Kapital merkatuen gainean interes tipoei duten eragina, inbertsio karteren kudeaketa eraginkorra, eta finantza merkatuak eta haien inguruan ageri ohi diren alderdi juridikoak ere aztergai izango dituzte Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak abian jarriko duten ikastaroan.

EHU

Unibertsitateko hiru campusetan asteburuetan ikasteko gelak irekiko dituzte azterketa garaian

Erredakzioa/Bilbo • Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetan ikasteko gelak zabalduko dituzte azterketa garaian. Ikasleek dituzten beharrei erantzuteko, 2000-2001 ikasturteko lehenengo azterketak direla-eta iragan urtarrilaren 13an hasi eta otsailaren 11 bitartean zabalik izango dira gelok Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetan, eta Arabakoan otsailaren 4a arte izango da ikasteko gelen zerbitzua erabiltzeko aukera.

Arabako campusean, Elurreta ikasgelategia erabili ahaliko dute ikasleek. Goizeko 09:00etan hasi eta 19:30 arte egongo da zabalik. Gipuzkoako campusean Zuzenbide Fakultate ondoko pabilioiak geratuko dira ikasleen esku. Horiek erabiltzeko ordutegia Arabako ikasgelategiko

berbera izango da. Bizkaiko campusean, larunbat goizetan Leioako campuseko Liburutegi Nagusia eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko liburutegia izango dira zabalik, 09:00etatik 13:00tara. Arratsaldeetan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasgelategia —Leioa— erabili ahal izango dute ikasleek; Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko —Sarriko— eraikin nagusiko beheko solairuko ikasgelak ere zabalduko dituzte. 13:00etatik 19:30era izango dute ikasleek horiek erabiltzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatetik gogorarazi dutenez, ikasteko gelak erabili nahi dituzten guztiek ikaslearen txartela aurkeztu beharko dute.

EHU

Elliot Murphyk kontzertua eskainiko du bihar, Donostiako campuseko Barriola auditorioan

Erredakzioa/Donostia • Elliot Murphyk kontzertua eskainiko du bihar Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako campusean, Elliot Murphy Trioren *Acoustic Tour*-aren barruan. Kontzertua 12:00etan izango da, Barriola auditorioan. Elliot Murphyekin batera Olivier Durand gitarra jolea eta Kenny Margolis akordeoi eta perkusio jolea izango dira agertoki gainean.

Elliot Murphy bira egiten ari da, eta Donostiako campusean geldialdia egingo du. Aurretik, Turtziozen joko du gaur bertan, El Tilo aretoan, bihar Donostiako campusean ariko da, etzi

Madrilera abiatuko da, eta Bilboko Euskalduna jauregian joko du hilaren 20an. Euskal Herrian Murphyk eskainiko duen azken kontzertua Deban izango da, Zubeltzu aretoan, 22:30etik aurrera.

Elliot Murphy 1973. urtean ateratu zuen *Aquashow* bere estreinako diskoa. Kritikak txalotu zuen disko hartatik hona bide luzea egin du, beraz, nortasun handiko kantautore eta gitarra joleak. Olivier Durandek parte hartu du Murphyrren azken lan guztietan —*Beauregard*, *April* eta *Rainy Season*—.

«Lantegietan etorkizunak euskalduna izan behar baldin badu, Lanbide Heziketa eskaintzen duten zentroak euskaldundu beharra dagoela uste dut»



da polita ematen du, eta egia da gauza bat planteamendua dela eta beste bat errealitatea. Errealitateak erakusten du globalizazioa gero eta globalagoa dela.

■ Zuk aipatu duzun aniztasunaren balore hori, ordea, mozkinak lortzea eta gastuak murriztea helburu duen ekonomia globalizatu batean kontraesankorra izango litzateke, ezta?

Hala ere, aniztasunak badakar aberastasun bat. Gauzak ikusteko modu desberdinak, lan bati aurre egiteko orduan filosofia desberdinak. Horiek dira aniztasuna balore moduan duen gizarte batek mundu globalizatu bati ekar diezaiokeena.